

# Arraunketa eta piraguismoko udal pabiloi berria

## Nuevo pabellón municipal de remo y piragüismo

**A**rraunketa eta piraguismo jarduerak nabarmen ugaritu dira azken urte hauetan. Santiagotarrak kluba aspalditik egiten ari den lanak bere fruitua eman du; kirol honen inguruko lehiaketak ugaritu egin dira eta gero eta gehiago dira kirol hau egin nahi duten eta instalazioak eskatzen dituzten irundarrak eta kanpotarrak.

Udal pabiloi berri honen bidez oraingo instalazioen zaharkitze-egoera eta muga nabariak gainditu nahi dira, gero eta handiagoa den eskaerari behar bezala erantzuteko. Horregatik, proposatu da

instalazio horiei erantsita beste bi eraikin egitea, modernoagoak eta gaur egungo premia eta eskakizunetara hobeto egokituko direnak.


Proiektuaren egileak, Gerhard Loch arkitektoak, aurkeztu duen egitasmu arkitektonikoan bolumen bakar bat agertzen da, solairu bakarreko eraikin bat hain zuzen, triangulu formakoa eta zeharkako pasabide baten bidez bi zatitan banatua; pasabide hori pabiloiaren bi aldeak elkarrekin lotuko dituzten fatxada lerro-makuren arteko "arrakala" izango da. Leiho zabalez osaturiko bes-

**L**as actividades del remo y piragüismo han tenido un importante crecimiento en los últimos años. La destacada labor desarrollada por el veterano club Santiagotarrak ha visto sus frutos en un incremento de la práctica deportiva de competición y también en un mayor número de iruneses y visitantes que demandan las instalaciones para la práctica puramente recreativa.

El nuevo pabellón municipal pretende superar las limitaciones y la situación obsoleta de las instalaciones actuales y poder dar respuesta a la demanda crecien-

te. Para ello plantea dos nuevas edificaciones anexas conectadas, más modernas, de un diseño acorde a los tiempos y a las necesidades actuales.

En realidad, el concepto arquitectónico planteado por el autor del proyecto, el arquitecto Gerhard Loch, nos habla de un único volumen, un edificio de una planta, con forma triangular y fraccionado en dos partes a través un paso transversal, una "fisura" entre dos fachadas curvilíneas que conectará un lado y otro del pabellón. Habrá otras fachadas con grandes ventanales y otras



# Arraunketa eta piraguismoko udal pabiloi berria Nuevo pabellón municipal de remo y piragüismo



# Arraunketa eta piraguismoko udal pabiloi berria

## Nuevo pabellón municipal de remo y piragüismo

te fatxada batzuk ere izango dira eta baita hangarretara sartzeko ate asko izango dituztenak ere. Kolore zuria eta urdina behar bezala nabarmenduko dira, inguru-nean egoki txertatzeko moduan.

Eraikuntza-proiektua bi fasetan gauzatuko da. Aurtun gauzatzen hasiko den lehenengo fase honetan aurreneko pabiloia egingo da oraingo eraikinaren eta Stadium Gal-en arteko eremuan.



con múltiples puertas de acceso a los hangares. Los colores blanco y azul tendrán también su protagonismo como factor de integración en el entorno.


El proyecto de construcción se plantea en dos fases. La primera de ellas, que se abordará este año, contempla la edificación de un primer pabellón en el espacio situado entre el actual edificio y el Stadium Gal.

### Eraikin berri horrek, funtsean honako instalazioak izango ditu:

- **Hiru gimnasio**
- **Hiru aldagela**
- **Bi simulazio-putzu**, lehorreko entrenamenduak egiteko (360 m<sup>2</sup> inguru)
- **Hezetasun-gunea, bi saunentzako eta gorputz-tratamendurako** hainbat gune izango dituena
- **Bulego-aldea, bilera-gela**, entrenatzaileen gelak, komunak
- **Irakaskuntza**: prestakuntza teorikoa, ikus-entzuzkoak, hitzaldiak eta abar hartuko dituen gunea
- **Instalazioak**: hartuneen eta galdararen gela.

### La nueva construcción albergará, básicamente:

- **Tres gimnasios**
- **Tres vestuarios**
- **Dos fosos de simulación** para entrenamiento en seco (aprox. 360 m<sup>2</sup>)
- **Zona húmeda** con espacios habilitados para **dos saunas y tratamiento corporal**
- **Zona de oficinas, sala de reuniones**, cuartos de entrenadores, aseos
- **Enseñanza**: espacio para formación teórica, audiovisuales, conferencias, etc..
- **Instalaciones**: cuarto de acometidas, caldera.



- 1 Itsasontzientzako hangarrak / Hangares de embarcaciones
- 2 Ponpaketa estazioa Txingudiko Urak / Estación de bombeo Aguas Txingudi
- 3 Ibilgailuentzako bidea / Vial de acceso rodado
- 4 Ontziralekua / Embarcadero
- 5 Aldagelak, gimnasioak eta zuloguneak / Vestuarios, gimnasios y fosos


# Arraunketa eta piraguismoko udal pabiloi berria

## Nuevo pabellón municipal de remo y piragüismo

Gerora, oraingo pabiloia bota eta horren ordez beste bat egingo da. Bigarren eraikin horretan egongo dira hangarrak (ibaira eta errepidera ateratzeko irteerak izango dituzte) ontziak gordetzeko lekuak, konponketa-tailerra (1.100 m<sup>2</sup>) eta ibilgailu eta atoiertzako garajeak; eraikin hori eraikinaren atal nagusiari loturik egongo da atari baten bidez.

**Aurrekontua (1. fasea):**  
**1.600.000 €**

---



Posteriormente, se procederá al derribo del actual pabellón y su sustitución por otro nuevo. Este segundo edificio estará destinado a los hangares (con salidas hacia el río y la carretera) para almacenaje de embarcaciones, taller de reparaciones (aprox. 1.100 m<sup>2</sup>), garaje para vehículos y remolques, y estará unido con el otro cuerpo principal de edificio por un vestíbulo.

**Presupuesto (1ª fase):**  
**1.600.000 €**

---

